

IZKIKO MENDIAK BIZIKLETAN

PARKE NATURALAREN ERRAIK EZAGUTUZ

TESTU ETA ARGAZKIAK



Iván Ruiz Rotaache
(Amurrio, 1982)

Pyrenaica aldizkariko erredakzio taldeko eta Trans Euskal Herria bizikleta ibilbideen lantaldeko kidea. Mendiko Lagunak eta COBI orientazio taldeko bazkidea.

Izkiko Parke Naturalean, Europako amezti handienetako batean, bada mendi bizikletaz gozatzeko aukera aparta. Aukera hori, Urturiko golfean harrera duen Izki Mendialdea BTT Zentroak eskaintzen digu, bere 15 ibilbideekin. Maila guztietako ibilbideak daude eta gaurko proposamena, maila ertaineko 6 eta 7 ibilbideak elkartzearen emaitza da, San Kristobal eta Mandazainen ibilbideak alegia. Izan dadila artikulu hau, *Pyrenaica* 263 zenbakian agertutako artikuluaren jarraipena.

Soila eta Gaztelua mendien arteko trokartera





Peña del Castillo, XII eta XIII. mendeetan gotorleku izan zen monolitoa

Antoñanan Vasco-Navarro bide berdearen museoa dago. Lizarra, Gasteiz eta Bergara lotzen zituen trenaren hiru bagoiren kopiek osatzen dute museoa. Hau izango da oraingoan gure abiapuntua, nahiz eta Urturiko golfean kokatzen den BTT Zentroa ere oso aukera ona izan (hemen dutxak eta bizikleta garbitzeko aukera dago). A-132 errepidearen gainetik doan zubia zeharkatuz, hasieratik bide berdea jarraituko dugu Maezturako noranzkoan, uneoro Berron ibaiaren ondotik. Konturatu gabe maldan gora goaz, laua ematen baitu bideak eta Ataurira iritsi baino lehen, tunel eta zubiren bat zeharkatu beharko dugu. Herri honetan beste tunel bat zeharkatu eta bideak, XIII. mendekoa den Bakardadearen baseliza erromanikora eramango gaitu. Aurrera eginez, tren geltoki berriatuaren ondotik igaro eta Maeztun sartuko gara (640 m).

Bihurgunez beteriko bidezidor dibertigarri honek Loizarreko inguru hezera eramango gaitu

Beste behin, A-132 errepidea zeharkatuz, Izki jatetxearen ondotik doan errepidea hartu eta ondoren, eskuinera Apinaizera daramaten

partzela bideetan gora egingo dugu. Herrira iristerakoan bi aukera ditugu: ibilbide motzagoa egin nahi badugu, ezkerrera maldan gora egingo dugu La Tejerako gainera iritsi arte (828 m) eta ondoren, kilometro erdiz pistan behera joan eta bidea utzi egingo dugu ezkerrera basoan sartzen den bidexka jarraituz. Bihurgunez

beteriko bidezidor dibertigarri honek Loizarreko inguru hezera eramango gaitu. Hemendik aurrera bidea zabalagoa izango da eta, ameztien artean Izki errekaraino hurbilduko gaitu ibilbide luzearekin bat eginez. Bigarrena aukeratuz gero, Apinaizen, Bengarako auzorantz joko dugu eta, San Kristobal mendia iparretik





Haritz lodia, zenbat pertsona behar ote dira bere enborra inguratzeko?

inguratzen duen oihanbidean gora egingo dugu. Arboroko lautadara igota, larre lasaien artean (W) San Justiko gailurreraino joango gara (1024 m), bere panoramika ederraz gozatzeko asmoz. Arluzeako lepora jaitsiko gara ondoren (966 m) eta hemendik abiadura bizian izen bereko herrira iritsiko gara bide zabal bat jarraituz. Markizera iristeko asmoz, Arluzean A-4150 errepidea hartuko dugu, hankei atsendenaldia emateko tarte aproposa baita hau. Herrira iritsi baino pixka bat lehenago, San Juan basiliza eta Peña del Castillo monolitoa ezagutzeko geldiunea egin dezakegu. Merezki duen bisita, zalantzarik gabe!

Markizera iristean, elizaren ezkerretatik doan bidea jarraituko dugu, sortalderantz. Marizurietako bide balizatuaz ezagutzeko aukera izanik. Bide honek, Engua mendiaren iparraldetik Urturiraino eramango gaitu, Izkiko ameztietan barrena. Legarrezko bidetik pare bat kilometro egin ondoren, bidea bitan zatitzen da eta eskuineko bidetik aurrera egingo dugu. Belabia mendiaren eki isurialdera igarotakoan, ezkerrean (E) jaitsiera polita hartuko dugu eta aurrerago lurzorua harea-lurrezkoa bihurtuko da. El Portal haitzera doan bidea eskuinera utzi ostean, El Raso aintzira azalduko da gure bidean eta aurrerago bidea legarrezkoa izango da berriz. Bitan zatitzen

denean, eskuineko bidetik El Espinal urmaelaren ondotik pedalka egin eta, golfa albo batera dugula, Urturira doan bidea jarraituko dugu.

Enbor osoa biltzeko lau lagun bikoak zabaldua baino gehiago behar da

Herrira iritsi baino lehen, ekialderantz doan bidea hartuko dugu metro gutxi batzuk aurrerago eskuinera topatuko dugun bidezidorra jarraitzeko. El Paseo bidea bezala ezagutzen den bide honek ameztitan murgilduko gaitu berriro Kintarako noranzkoan. Bide honen bihurtune mordoek ibilbidearen zati hau oso dibertigarria egiten dute. Berriz bide zabalera irtendakoan, iparralderantz ekingo diogu Mandazainen bidetik eta laster, Las Rozas aintziran gelditu eta hamaiketako egiteko aukera izango dugu. Ingurune lasaia. Gure bidetik jarraituz, harea lurzorua nagusitzen joango da eta zailagoa izango da pedalka egitea. Hurrengo bidegurutzean, Korreseko noranzkoan eskuineko bidea hartuko dugu eta Izki errekaekin topo egin baino lehen, ezkerrean, haritz lodira daraman bidea aurkituko dugu. Gomendagarria da oso zuhaitz honen ondora hurbiltzea. Enbor osoa biltzeko lau lagun bikoak zabaldua baino

gehiago behar da zalantzarik gabe. Haren ondoan, edonor txiki sentitzen da.

Atzera bueltatuz, eta zurezko zubi txikiren bat zeharkatuz, bidezidorra ibaiaren aldame netik doa orain (E). A-3136 errepidea zeharkatu eta ibaiaren hego isurialdetik doan bidea jarraituko dugu Izkiko olgetarako parkea dagoen sarreraraino. Korresen gaude jada, hemen elizaren bila maldan gora egin eta Soila eta Gaztelua mendien artean dagoen leporantz abiatuko gara. Eguneko igoerarik zailena, baina goian izango dugun panoramikak merezi du. Ondoren datorren jaitsiera bizkorra da, benetan gozatzekoa. Makina bat argazkitan azaldu den trokartetik igaro eta, Antoñanaroko noranzkoan, haginaren bidearen sarreraraino joango gara. Egurrezko atakara iristerakoan, eskuinera jo eta zuhaitzen artean sigi-saga jaitsiko gara, gure ibilbidearen abiapuntura iritsi arte. Adrenalina maila gorenean dugula amaituko dugu jardunaldia, amaiera paregabea duda barik.

LUZERA: 50 km
METATUTAKO ALTUERA: 1000 m
BTT ZENTROKO LIBURUKKA:
https://turismoa.euskadi.eus/contenidos/i_deportes/0000016901_i2_rec_turismo/eu_16901/adjuntos/Folleto_BT_Izki.pdf

